

Hernaniko Kirol ekipamenduen inguruko parte hartze prozesua 2013.

Amenabar Perurena, Beñat. EHU.

Aldeiturriaga Amuriza, Estibaliz. Hernaniko Udala.

Harremanetarako helbide elektronikoa: amenabarbildu@gmail.com

Arloa: Kirolaren Politika eta kudeaketa.

Laburpena:

Hernaniko herrian 2013.urtean aurrera eramán zen parte hartze prozesu baten berri emango dugu aurkezpen honetan.

Jarduera fisikoa eta kirol errealitate aberatsa eta anitza duen herria da Hernani. Horretaz gain, kirol-instalazio ugari daude Hernanin, baina denak ez daude egoera berean. Baliabideak mugatuak dira, eta, beraz, garrantzitsua da beharrak eta lehentasunak ondo zehaztea, inbertsioak ahalik eta eraginkorrenak izan daitezzen. Era berean, egungo beharrak ez ezik, garrantzizkoa iruditzen zitzaigun epe ertainean kirolaren esparruan egon zitezkeen joerak kontuan izan eta sor daitezkeen beharrei ere bide ematea.

Horretarako, Udalak kirolaren eta kirol-espazioen inguruko hausnarketa bultzatu zuen eta hausnarketa hori herritarrekin, kirol-elkartekin eta federatu gabeko kirolariekín batera egin nahi izan zuen.

Kirola praktikatzén duten hernaniarren behar, interes eta iritziak abiapuntutzat hartuta, kirol-espazioen beharren diagnostikoa eginez. Era berean, diagnostiko hori oinarri harturik, kirolaren arloan epe ertainera begirako plangintza osatzea zen helburua, aurrera begirako irizpideak eta lehentasunak jasoko zituená.

Bestalde, herritarren parte-hartzeak beste dimentsio bat ere badu, hau da, herritarra horrelako prozesuetan inplikatzearékin batera, administratziotik ere zuzeneko informazioa eskuratzea eta parte sentitzea.

Horrenbestez, Hernaniko kirol-espazioen inguruko prozesuaren nondik norakoak azalduko ditugu aurkezpen honetan.

Gako-hitzak: Udál Kirol Politikak, Kirol Ekipamenduak, Parte hartze prozesuak, Hernani

Sarrera :

Hernanin kirolaren inguruko dinamika handia da. Herrian jende gehien mugiarazten duen esparrua da, eta kirola praktikatzeko modu ezberdinak daude: elkarteetan federatuta, eskolan, kirol-lehian, osasuntsu mantentze aldera... Guztira 21 kirol-elkarte daude herrian eta kirol federatu gabea egiten duten hernaniarrak gero eta gehiago dira.

Era berean, kirol-instalazio-espazioak anitzak dira Hernanin, bakoitzak bere ezaugarri eta errealitatea duelarik. Esaterako, kiroldegia Gipuzkoako zaharrenetako bat da, baina urtean 300.000 sarreratik gora izaten ditu eta aste osoan egoten da zabalik; Landare errugbi-zelaia Urumea ibaiak hartzen du uholdeetan; atletismoari dagokionez, berriz, pista bat badago baina 300 metrokoa da, eta ez 400ekoa...

Udalak uste zuen inbertsioak egin, egin behar zirela Hernaniko kirol-espazioak egokitzeko, baina egungo krisi-egoerak asko mugatzen zuen (orduan gehiago gaur egun baino) horretarako aukerak. Baliabideak mugatuak dira, eta, beraz, garrantzitsua da beharrak eta lehentasunak ondo zehaztea, inbertsioen eraginkortasuna ziurtatuz ahal den neurrian. Era berean, egungo beharrak ez ezik, garrantzizkoa iruditzen zatzaion Udalari epe ertainean kirolaren esparruan egon daitezkeen joerak kontuan izan eta sor zitezkeen beharrei ere bide ematea.

Horretarako, Udalak kirolaren eta kirol-espazioen inguruko hausnarketa egin nahi izan zuen eta hausnarketa hori herritarrekin, eragile desberdinekin (Kirol elkarteak,..) batera egin zuen. Kirola praktikatzan duten hernaniarren behar, interes eta iritziak abiapuntutzat hartuta, elkarrekin kirol-espazioen beharren diagnostikoa egin zen. Era berean, diagnostiko hori oinarritzat harturik, kirolaren arloan epe ertainera begirako plangintza osatu zuten, aurrera begirako irizpideak eta lehentasunak jaso ondoren.

Beraz eta laburbilduz, aurkezpen honetan prozesua honen argibide batzuk eman nahi ditugu beste herri eta lurraldeetako arduradenei interesgarria suertatuko zaielakoan.

Metodologia:

Partaidetzan oinarritutako prozesuak planifikatuak eta konplexuak dira, aurretiaz ongi pentsatu eta antolatu beharrekoak. Partaidetzazko prozesuak gai baten inguruan emaitza bat lortzeko antolatzen dira. Hala ere, prozesuok bestelako helburuak ere izaten dituzte, hala nola, herritarrak partaidetzazko kulturaren heztea eta ohitzea, herritarrak boteretzea, aurrerantzean ere parte hartzen jarrai dezaten motibatzea eta asebetetzea, etab.

Zehazki dagokigun prozesua aurrera eramateko Elhuyar enpresaren aholkularitzaren laguntza izan genuen. Jarraitu beharreko pausuak definitu ahal izateko talde eragilea deituriko talde bat osatu genuen, eta bertan udalaren partetik Kirol Zinegotzia, Jarduera Fisikoa eta Kirol saileko teknikari batek, Hirigintza Saileko teknikaria (kasu honetan arkitektoa izan zen) , Udaleko Komunikazio arduraduna eta baita interesa adierazi zuen herritar batek ere parte hartu zuen. Elhuyar enpresako bi teknikarirekin batera.

Prozesuak berak helburu orokor hau zuen:

Hernanin kirola egiten duten herritarrekin kirol-espazioen eta kirol-praktiken inguruan hausnartzea, eta beharrei erantzuteko plangintza lantzea.

Bestalde beste helburu zehatz batzuk ere definitu genituen:

Hernanin egun dauden kirol-espazioak identifikatu eta baloratzea.


Egungo kirol-espazioek asetzen ez dituzten beharrak identifikatzea.

Egungo eta etorkizuneko kirol-praktiken inguruan hausnartzea, eta etorkizuneko beharrak identifikatzea.

Egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuteko irizpideak lantzea, eta lehentasunak finkatzea.

Epe ertainerako plangintza lantzea: zer beharri noiz erantzungo zaion zehaztea.

Helburu hauek bete ahal izateko ondorengo grafikoan agertzen diren faseak eraman genituen aurrera:




Elhuyar Aholkularitzak egina (2013)

Emaitzak

Parte hartze prozesu honek hainbat emaitza eman zituen Hernaniko herrian. Horrelako dokumentu batean laburbiltzea ez da erraza eta nagusiki foroetan ateratako emaitza esanguratsuenak aipatuko ditugu. Interesa duenak dena den Hernaniko Udaleko web gunean topatuko du prozesu osoa adierazten duen txostena, jarraitutako prozesua eta lortutako emaitzak. (<http://erabaki.hernani.eus/egindako-prozesuak/kirol-espazioen-azterketa-parte-hartzailea/>)

Lehen bi foroetan, gaiaren gainean herritarrei informazioa emateko hainbat material prestatu ziren. Besteak beste herrian dauden kirol instalazio mapak:



Hala ere lehenengo bi foro horietan nagusiki gaur egungo errealitatea aztertu zen, hau da, kirol espazio horiek idantifikatu ziren eta gaur egun zein egoeratan dauden ere erreparatu zen. Halaber, kirol-espazioekin fitxak osatu genituen, lantzeko, eta foroan parte hartu zutenek azpimarratu zuten zer zeukaten ona edo positiboa eta zer zeukaten txarra edo hobetzekoa.

Behin fitxa horiek beteta genituenean Hernanin egiten diren kirol-jarduerak eta espazioak erlazionatu nahi izan genituen, non zer egiten zen jakiteko.

Taula parte hartzeileen eskura jarri zen eta berau aztertu zen. Ez dugu uste aurkezpen honetarako garrantzitsuena denik zein ondorio edo komentario jaso ziren azterketa honetan, baina hona hemen adibide batzuk osagarri izan daitezkelakoan, herritarrek esanetatik ateratakoak:

- Auzo guztietan badago zerbait, baina azpiegiturak falta dira zenbaitetan (Galarreta, Osinaga...). Etorkizunean osatu edo konpentsatu egin beharko da.
- Ez dago zentralizatuta, banaketa nahikoa orekatua da. Edozein tokitatik abiatuta, 5-10 minutuan kirol-espazioen batera iritsi zaitezke.
- Kirol-instalazio asko daude, eta asko ez ditugu ezagutzen. Gure inguru hurbilekoa ezagutzen ditugu, baina besteak ez.
- Kirol-espazio orokorrak behar dira, edozein jarduera egiteko (korrika, oinez, bizikletan...). Horietan aztertu egin behar da erabilera, eta behar baldin bada, erabilera batzuk mugatu ere bai (autoak). Ezin dira mugatu lekuak erabilera batera
- Naturaren eta paisaiaren babesa kontuan izan etorkizunean, badagoelako jendea horrexegatik aukeratzen dituen espazio horiek.
- Azpiegiturei garrantzia ematen zaie, eta, aldiz, naturan daudenei ez.
- Espazioetako asko ez dira erabiltzen. Izan daiteke ez direlako ezagutzen, edo behar bezalako baldintzarik ez daukatelako... Aztertu behar da ea gehiegi dauden. Nolanahi ere, posible da sustatzea eta ezagutaraztea, jendeak erabil ditzan
- Kirol-espazio asko daude.
- Orokorrean zaharkituak
- Oso konbentzionalak
- Naturan kokatuak gutxi, eraikinen artean gehienak
- Gazteentzat gutxi
- Sarrera mugatua daukate askok (adibidez, ikastetxeetakoek), baina aztertu behar da kanpoko espazioak zabaltzea. Barrukoei dagokienez, kiroldegiko beharrak asetzeko hitzarmenak sina daitezke? Lantzea komeni da, kiroldegia deskargatzeko.
- Irisgarritasun-arazoak daude orokorrean.
- Estalpeak jartzeko proposamen asko agertzen dira, baina ezin da dena estali. Akaso aztertu zer bi/hiru estali?
- Minifrontoiak txikiak direla dio paperak. Adostasunik ez paperarekin → erabilera ezberdin eta anitzak bilatu behar dira. Minifrontoia ez da berdin frontoia.
- Helduak eta umeak aztertu beharko litzateke. Non jolasten dira umeak? Bidebieta, Atarrabiyo, Zinkoenea, leku naturalak, Atsegindegin
- Harrigarria da zenbat kirol-modalitate desberdin egiten diren Hernanin

- Aztertu behar ditugu hobeto gure baliabide naturalak (adibidez, Urumea ibaiaren inguruak)
- Mahai-teniseko mahaiak kendu egin dituzte zenbait lekutan. Gabriel Zelaian eta Elizatxon badaude.
- Espazio orokorrak ere hor daude (mendia, bizikletaz ibiltzeko lekuak)
- Piraguismoa ere egiten da, arrauneko lokalean, eta Fagollaga aldean ere badago aukera, Ereñotzun ere bai
- Etorkinak elkartu egiten dira, familiak eta lagunak, kriketean-eta jolasteko. Horiei instalazioak utzi/eman jarri. Banaiz bagarakoak aritzen dira. Sorgintxulon jolasten dira
- Goiz Eguzkin petankan jolasten dira
- Patinetan ibiltzen da jendea, poligonoetan, parkeetan
- Korrika ere egiten du jende askok ibilbide-sarean
- Donostia alderako bidegorria izatea lehentasunezkoa izan beharko luke. Ez da askorik falta, gainera
- Joera izaten da zerbait behar denean eraikitzeko, porlana

Gaur egungo egoera aztertu ondoren, beharrezkoa ikusten zen etorkizuneko kirol praktiken eta kirol espazioen gogoeta egin behar zela.

Etorkizuneko kirol praktikak irudikatu ostean, ondorio komun batzuetara heldu ginen:

- Guztiontzako praktika izango da, jaiotzetik hasi eta heriotzara artekoa.
- Bizitza - estilo aktiboari lotuta egon da.
- Lehiatzeak garrantzia izaten jarraitu du, eta esparru horretan emakumezkoek espazioa irabaziko dute.
- Naturari lotutako praktika bat izango da.
- Egokitua egongo da, aukerak egongo dira behar bereziak dituztenek praktika egokiak egin ditzaten.
- Aniztasunean egingo dugun praktika izango da.
- Nortasunarekiko lotura ez du galduko.

Etorkizuneko kirol espazioen gogoetatik ateratako ondorioak esaten digute momentu honetan dagoena elkarbanatu eta hobetzeko joera egon behar dela eta espazio horiek egokituak eta taldeen bilgune izan beharko lirakekeela.

3. foroa berriz irizpideen alorrari eman genion garrantzia hau da, lortu eta antolatu genuen informazio guztia kontutan izan da eta amaieran plangintza zehatz bat egiteko asmoz eta era berean beharrak lehenesteko modua izateko, kontuan izan ziren **Hernaniko Udalak dauzkan irizpide orokorrak**, hain zuzen ere, Kirol Politikan eta Agenda 21ean jasota daudenak, eta hemen labur aipatzen ditugunak:

HERRITARREI DAGOKIENEZ:

- Jarduera fisikoa eta Osasuna sustatzea herritar guztien artean.
- Eguneroko bizitzan eta aisialdian herritarren arteko ohitura aktiboak sustatzea.

JARDUERARI DAGOKIONEZ:

- Hernaniko herriak eskaintzen dituen espazio eta jardueren aniztasuna bermatzen jarraitzea.

ESPAZIOARI DAGOKIONEZ:

- Lurzoruaren erabilera egokia egin eta udalerriko natur eta paisaia-balioak babestu eta balioan jarri.
- Mugikortasun-plangintza desplazamendu iraunkorrakoak sustatzeko moduan garatu (adibidez, oinezkoen lehenetasuna eman, motorrik gabeko mugikortasuna erraztu, bizikleta-sarea garatu...).

HERRITARREI DAGOKIENEZ:

- Udalerrian bizi diren pertsona immigranteen ongizatea eta integrazioa bultzatu.
- Eremu guztietan emakumeen eta gizonen arteko parekidetasuna bermatu.
- Gizarte-kohesioan izan dezakeen eragina (harremanak)
- Espazio berriak egitea baino gehiago, gaur egun daudenak egokitzea edo moldatzea ahal baldin bada Mantentzea
- Ahalik eta eragin txikiena eragitea ingurumenean, inguru naturalak lehenestea eta aprobetxatzea
- Edozein herritar edo kolektiboren ahalduntzea bultzatzea, parte-hartzea bultzatzea
- Udalaren eta kirol-elkarteen eta kirol-praktikatzaileen arteko harremanak eta elkarlana bultzatzea
- Kirol- jarduera guztiek izatea praktikatzeko espazioen bat Hernanin
- Behar horren atzean dagoen jende kopurua edo babesa
- Espazioa kirol baterako baino gehiagorako erabili ahal izatea: toki polibalenteak egin/egokitu: kirol-anitza/multi-kirola

Eta azkenik 4. Foroan plangintza osatu genuen hau ere taula osatu batean adieraziz, bertan hainbat erabaki finkatzen ziren, bakoitzari zegokion informazio zabala adierazita. Honela helburu bakoitzari zegokion jarduera identifikatzen zen, helburu bakoitzetik ateratzen diren ekintza zehatzak aipatuz. Ekintza bakoitza lehenetsunaren arabera antolatu zen, zein epetan egin beharko zen eta arduraduna zein izan daitekeen. (Abidide zehatzak, <http://erabaki.hernani.eus/egindako-prozesuak/kirol-espazioen-azterketa-parte-hartzailea/>)

Azkenik ondorio orokor batzuk ere definitu ziren etorkizun batetarako. Honako hauek:

- Kirol Foroa: prozesuan sortutako Kirol Foroak martxan jarraitzea proposatu zen. Foro honek bilerak egingo ditu bi hiletik behin, eta orain arte izan duen izaera eta dinamika gordeko ditu, parte-hartzea sustatuz. Kirola praktikatzeko dutenen eta Udalaren arteko lotura izango da eta bertan Udalak egiten ari denaren berri emango die herritarrei. Foroak aholkularitza emango dio Udalari plangintza berrikusi eta neurri zuzentzaileak proposatuta beharrezko jotzen denean.
- Plangintzaren garapena: ekintzak garatzeko baliabide ekonomikoak behar dira eta horregatik udal-aurrekontutik plangintza honen garapenera bideratutako zati bat beharrezkoa da. Bi era ezberdinetako ekintzak bereiz ditzakegu: batetik, komunikazioari eta administrazioari lotutakoak; bestetik, obrak. Horien tratamendua ezberdina izango da. Muga ekonomikoak parte-hartzea sustatuz gaindi daitezke.

- Hasteko, prozesutik irtendako **emaitzaren berri eman** beharko dugu, eta plangintzari balioa emateko modurik egokiena **martxan jartzea** da; auzolanean oinarrituko diren ekintzekin has daiteke. Orain arte prozesuan gazteen (25-30 urte) hutsunea nabaritu izan da, eta horien inplikazioa lortzen saiatu behar dugu.

Ondorioak.

Esperientzia hau aurrera eramatean hainbat ondorio atera ditugu Hernani mailan:

1. Parte hartze prozesuak gizartean orohar eta Jarduera fisikoa eta kirol politikak zehaztu eta gauzatzera koan tresna baliagarriak dira.
2. Espazio eta eremuen identifikazioak egitea berez merezi zuela esan genezake.
3. Lehentasunak finkatzean irizpideez herritarrekin hitzegiteak prozesua asko aberasten du.
4. Administrazioa eta Kirol Elkarttekiko harremanak modu jasangarriagoan eraikitzeke balio izan zuen.
5. Kirol ikuspegi ireki eta etorkizuneko bat sortzeko gai izan zen.

Erreferentziak

<http://erabaki.hernani.eus/egindako-prozesuak/kirol-espazioen-azterketa-parte-hartzailea/>